



Argazkia: Maribi Ugarteburu

Oletan autobusa hartu eta Isuntzako zubira joan ziren goizeko 10.30etan, 15 lagun inguru: Lea Ibarreko eta albo herrietako udal ordezkariak, Aldundiko Ingurumen saileko ahaldun Josu Madariaga eta Maria Uribe zuzendaria, proiektuaren ardura teknikoa eraman duten ordezkariak eta hainbat hedabidetako kazetariak.

Marierrotako andapara, Leako ontziolak, Zubieta jauregia, hospital zaharra eta padura inguratu zituzten, Lea Ibilbidean zeharreko ordu erdi inguruko txangoari ekinez, Gillermo Ruiz de Erentxun-en gidaritzapean, bidearen trazatu eta diseinuaren koordinatzaile teknikaria: 'Lea bailararen potentziala ingenio eta naturaren konbinaketan datza'. Beste elementu batzuen artean, Pedro Bernardo Villareal de Berriz-ek Leako bailaran gauzatutako makina hidraulikoak azpimarratu zituzten.

'Ibilbide atsegina izateaz gain, etorkizuneko hainbat ekimenetarako ardatza izan daiteke. Bere funtzioa, erakargarritasun turistikoa izatea eta identitate eta ondarearen berreskurapena gauzatzeko tresna bilakatzea da'.

Lea Ibilbidea antzinako Errege Bideari jarraituta - ahal izan den tokietan - eta bide zati berriak eraikita burutu da. Adibidez Ipideiko kasuan, Amorotoko Ugaran auzoan, indusketa arkeologikoa egiten dihardute. Ibiltariak lan hauen garapena zuzenean jarraitzeko aukera izan dezan, bere gainaldetik egurrezko pasabide bat eraiki da.



Argazkia: Maribi Ugarteburu

Ekitaldia Errotabarriko zubian bukatu zen. Bertan Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoko lehendakari den Iker Belaustegi eta Aldundiko ahaldun Josu Madariagak ireki zuten ibilbidea ofizialki; erakunde ezberdinen elkarlana azpimarratuz eta proiektu honen gauzapenari buruzko azalpenak emanez.

Aldundiko Ingurumen Sailak, 4.123.650 Ä-ko aurrekontuaren %75-a beregain hartu du. Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailak ere esku hartu duelarik egitasmoa laguntzerakoan.

'Laguntzea besterik ez dugu guk egin, merito guztia Lea Ibarreko herritarrek eta ordezkariak daukazue, ideia hau hainbat denboran lantzearen' aipatu zuen Josu Madariagak. 'Lea bailarako herrien arteko lotura sendotzeko balioko du Lea Ibilbideak; kohesioa da bere balioetako bat'.



Se ha inaugurado Lea Ibilbidea

28-03-2006



Foto: Maribi Ugarteburu

A las 10.30 de la mañana fueron en autobus desde Oleta al puente de Isuntza unas 15 personas; representantes de los ayuntamientos de Lea Ibarra y pueblos de alrededor, Josu Madariaga (diputado) y Maria Uribe (directora) del Departamento de Medio Ambiente de la Diputacion, los representantes que han llevado acabo el trabajo tecnico del proyecto y periodistas de varios medios de comunicacion.

Rodeando la gigantesca antepara del molino de Marierrota, pudieron apreciar los astilleros del Lea, el palacio Zubieta, el antiguo Hospital y la marisma. Guillermo Ruiz de Erentxun (coordinador del diseno y trazado del recorrido) les guio durante el paseo de no mas de media hora por Lea Ibilbidea; 'El potencial del Lea Ibarra radica en la combinacion de ingenio y naturaleza'. Se destaco la importancia de las maquinas hidraulicas construidas por Pedro Bernardo Villareal de Berriz durante los siglos XVII y XVIII que se situan alrededor del recorrido.

"A parte de ser un paseo agradable, puede ser el eje de futuros proyectos. A dia de hoy, su funcion es la de atraccion turistica y ser la herramienta para la recuperacion de la identidad y el patrimonio de la comarca". Lea Ibilbidea, en algunos de sus tramos, esta trazado por encima del antiguo Camino Real que conectaba con el Duranguesado. En Ipidei, barrio Ugaran de Amoroto, se estan llevando acabo escavaciones arqueologicas y con la intencion de que los visitantes puedan seguir en directo la evolucion de estos trabajo, se ha colocado una pasarela de madera por encima. La inauguracion se termino en el puente de Errotabarri, Amoroto. Se abrio oficialmente al publico el recorrido de la mano de Iker Belaustegi, presidente de Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa, y Josu Madariaga diputado del Departamento de Medio Ambiente de la Diputacion. Se hablo del trabajo en equipo de diferentes entidades y la evolucion y las caracteristicas del proyecto desde sus inicios. El departamento de Medio Ambiente de la Diputacion ha contribuido con el 75 % del presupuesto total del proyecto, cifrado en 4.123.650 euros y se ha contado tambien con la ayuda del Departamento de Empleo y formacion de la Diputacion.

"Nosotros solo hemos ayudado, pero el merito lo teneis vosotros, los ciudadanos y representantes de Lea Ibarra, por desarrollar esta idea durante tanto tiempo" afirmo Josu Madariaga. "Lea Ibilbidea ayudara a reforzar los vinculos entre los municipios de Lea Ibarra"



Foto: Maribi Ugarteburu

